

41. atala: Bakarka

Hipster eta ier

41.1.- Entzun audioa eta erantzun galderei:

- Zein dira Kevinek ulertzen ez dituen bi hitzak?
- Sarasolak ba al daki horien esanahia?
- Nola definitzen ditu Eskisabelek hipsterrak? eta ierrak?
- Zeintzuk izan ziren garai batean jarraitzaile ezagunak?

41.2.- Tribu urbanoak aipatzen dira entzungaian. Erreparatu beheko definizio hauei, eta bete taula dagokion tokian x bat jarritz:

HIPSTER



Hipster tendentzia 40. hamarkadan sortu zen, Estatu Batuetan. Jazz inguruan sortu zen eta kultura afroamerikarra oso gustuko dute.

Gizonezkoen kasuan esaterako, lepokoak, bufandak, txapelak, pasta-itxurako betaurrekoak, zapatilak zapata antzekoak. Hala ere, badaude zenbait hipster eskusibo, eta hauek pajaritak edo gorbata estu xamarrek erabiltzen dituzte.

Emakumeen itxura berriz, definituagoa da. Soineko loreduak eta bota kanperoak erabiliko ditu. Bai, bai, botena oso garrantzitsua da. Izan ere, emakume hipsterren bereizgarri dira.

Orrazkerari eta itxurari dagokionean, hipsterrak bereziak dira. Mutiletan nabarmenena bibotea da, bai bibotea edo bizar handiak eramaten dituzte. Horrez gain, ile utziak izaten dituzte, esnatu itxurakoak. Emakumeen kasuan, berriz, erromantiko kutsua dute: ile luzeak eta ondulatuak, kopetako ile irekiak. Prestatu gabeko ileak dirudite, baina ez, ez, lan asko dute hauek etxetik atera aurretik.

Hipster bat ez duzu ikusiko bizikletarik, musika-kaskorik eta bibote edo bizarrik gabe.

VINTAGE



Vintagea urte batzuk dituen objektu edo elementuei erreferentzia egiteko hitza da. Frantsesetik dator, hitzaren *Vingt* zatiak 20 esan nahi du eta *age*-ek urteak. Beraz, hitzaren esanahiak 20. hamarkadako objektu, osagarri eta arropen egiten die erreferentzia.

Vintage tendentzia Estatu Batuetan hasi omen zen, Manhattanen zehazki. Bertako emakume aberatsek beren arropak pertsonalizatzeko nahia agertu zuten. Armairuan urteetan zituzten arropak berriz ere janzteko nahia, eta diseinatzaile ospetsuen arropa klasikoak berriz ere kaleetara eraman zituzten.

Antigoaleko altzariak eta tresnak gustatzen zaizkie. Arropa eleganteak erabiltzen dituzte, detaile askoko arropak izaten dira. Normalean, belaunetik beherako luzera

izaten dute haien gonek.

Ileari dagokionez, ile ondulatuak, kopetako ileak, ile solteak... estetika erromantikoa dute. Emakume gehiago ikusten dira vintage estilokoak gizonak baino.

41. atala: Bakarka

RETROA



Retroa, berriz, aurreko urteetan klasiko bihurtu direnen diseinuetan oinarritutako arropa da. Retro hitza, latinetik dator eta atzerantz esan nahi du. Beraz, diseinuei atzerantz begiratu eta berria sortzea litzateke.

Retroko arropen diseinua, batez ere, 1960-70. urteetan oinarritzen da. Retroak itxura modernoa eta landua du, hau da, diseinua egitean aurreko hamarkadetan egin den modetan oinarritzen dira, baina material berriekin osatuak daude. Retroa, gaurkotutako erreproduzioa dela esan dezakegu.

	Hipster	Vintage	Retro
Lepokoak, bufandak eta txapelak erabiltzen dituzte.			
20ko hamarkadako gauzei erreferentzia egiten dio.			
Batez ere, 1960-70. urteak dira bere erreferentzia.			
Soineko loreduak eta bota kanperoak gustatzen zaizkie.			
Nabarmenenak bibote edo bizar handiak izaten dira.			
Emakume gehiago ikusten dira gizonak baino.			
40ko hamarkadan sortu zen.			
Estatu Batuetako emakume aberatsek sortu zuten.			
Popularrak diren kantuak gorroto dituzte.			
Aurreko urteetan klasiko bihurtu diren diseinuetan oinarritzen da.			
"Fixie" bizikletak erabiltzen dituzte.			
Haien ileek prestatu gabeak dirudite, baina oso landutakoak dira.			
Itxura modernoa eta landua du.			
Antigoaleko altzariak eta tresnak gustatzen zaizkie.			
Kultura afroamerikarra oso gustuko dute.			



41. atala: Bakarka

Transkripzioa (02:48)

- K- Hal-ionen albisteak irakurtzen ibili naiz eta badaude ezagutzen ez ditudan bi hitz.
- T- Bi soilik?
- K- Bai.
- T- Bueno, hala baduk, hemen hagoenetik asko aurreratzen ari haiz.
- K- Zer esan nahi duzu?
- K- Aizu, Euskaltzaindiko apaiza zarenez, azalduko al diozu alfabetatu gabe honi zer esan nahi duen hipster-ek?
- T- Zer?
- K- Hips-ter
- T- Baina hori euskara al duk?
- K- Bada, hemen euskarazko testu batean dago idatzita.
- T- Eta ulertzen ez duan bestea?
- K- Ier
- T- Ier?
- K- Bai, entzun "Agur *hipsterrei*, kaixo *Ier-ei*"
- T- Iurreta... Iurreta.. hemen Trebiñu II deika.
- E- Zertara dator larrialdi dei hau, Sarasola? Zer gertatzen da?
- T- Arazo bat daukagu, arazo linguistiko bat.
- E- Harritzekoa. Zu eta zure arazo linguistikoak.
- T- Aber, Eskisabel kapitaina, zuk ba al dakizu zer esan nahi duen *hipster* hitzak? eta zein huan bestea, Johnson?
- K- Ier. Esaldiak dio: "Agur *hipsterrei*, kaixo *ier-ei*".
- E- Saiatuko naiz zalantza argitzen. Badakit bestela Tasiok ez didala bakerik emango.
- E- Dirudienez, duela 50 bat urte sortu zen tribu urbano bat...
- T- Tribu urbano bat?
- E- Aspaldiko moda-kontuak, Sarasola... Hipsterrak beti azken tendentziak jarraitzen zituztenak ziren.
- K- Eta besteak? ier-ak?
- E- Ba ier hori fan edo zaletuen sinonimoa da. 2015. urtean hasi omen ziren erabiltzen, batez ere kantari ezberdinen jarraitzaileak: beliver, gemelier, auryner...
- T- Jo... Star Trek-eko klingon hizkuntza dirudi horrek.
- E- Dirudienez, Euskal Herrian oso fuerte jo zuena beste ier bat izan zen.
- K- Jo, nik ez nuen ezagutzen. Zer esan duzu zela? Aktore bat? Kantari bat?
- T- Ez, ez huan farandulakoa.
- E- Farandula horretakoa behintzat ez.
- T- Bueno, beste fan edo jarraitzaile mota bat hituan, bai.
- E- Badirudi garai hartan makina bat zirela Euskal Herrian. Garaiko komunikabide eta dokumentazioa errepatatzea besterik ez dago.
- K-Nola esan duzu zirela?
- E- Otegier. Pluralean, Otegiere. Arnaldo Otegiaren jarraitzaileak.

41. atala: Bakarka

Erantzunak

41.1.-

- 1) Hipster eta ier.
- 2) Ez. Sarasolak ere ez daki.
- 3) Hipsterrak duela 50 urte sortutako tribu urbano gisa definitzen ditu. Azken tendentziak jarraitzen zituztenak. Ierrak, aldiz, fan edo zale gisa.
- 4) Otegiers, Arnaldo Otegiren jarraitzaileak.

41.2.-

	Hipster	Vintage	Retro
Lepokoak, bufandak eta txapelak erabiltzen dituzte.	x		
20ko hamarkadako gauzei erreferentzia egiten dio.		x	
Batez ere, 1960-70. urteak dira bere erreferentzia.			x
Soineko loreduak eta bota kanperook gustatzen zaizkie.	x		
Nabarmenenak bibote edo bizar handiak izaten dira.	x		
Emakume gehiago ikusten dira gizonak baino.		x	
40ko hamarkadan sortu zen.	x		
Estatu Batuetako emakume aberatsek sortu zuten.		x	
Popularrak diren kantuak gorroto dituzte.	x		
Aurreko urteetan klasiko bihurtu diren diseinuetan oinarritzen da.			x
"Fixie" bizikletak erabiltzen dituzte.	x		
Haien ileek prestatu gabeak dirudite, baina oso landutakoak dira.	x		
Itxura modernoa eta landua du.			x
Antigoaleko altzariak eta tresnak gustatzen zaizkie.		x	
Kultura afroamerikarra oso gustuko dute.	x		